BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4823

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 3koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, administrazio-emakida aitortzeko proiektuen arteko lehiaketa-prozedurari hasiera ematen diona.

Lehenengoa.– Bermeo Off Shore, S.A.k administrazio-emakida eskatu du 3.332,01 m^2-ko azalera duen biltegi estalia okupatu eta erabiltzeko Bermeoko portuan.

Bigarrena.– Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen Testu Bateginaren 83. artikuluaren arabera, proiektu arteko lehiaketari hasiera eman behar zaio eta bere iragarkia, aipatu Testu Bateginaren 85.1 artikuluarekin bat, argitaratu.

Hirugarrena.– Urriaren 21eko 236/1986 Dekretuak onartutako Portuetako Jardueren Erregelamenduko 3. artikuluak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari ematen dizkio portuetako zerbitzuen kontrola eta kudeaketa eta portuen antolamendua; eta, azken finean, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenpeko portuetako instalazioetan eta portuetan burutzen diren jarduerekin zerikusia duen oro.

Horrela, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.e) eta 14.1.m) artikuluek zuzendaritza honi ematen dizkioten ahalmenak baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hasiera ematea proiektuen lehiaketa prozedurari, Bermeoko portuan 3.332,01 m^2-ko azalera duen biltegi estalia okupatu eta erabiltzeari buruzko emakida aitortzeko.

Bigarrena.– 1.– Hilabeteko epea ematea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, beste eskaera batzuk aurkezteko. Eskaerok irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen Testu Bateginaren 84. artikuluak eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

2.– Eskaerak Bizkaiko Portuen Lurralde Zerbitzuan (Elkano 3 behea, 48011 Bilbao) eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1-Lakua 1-7. solairua 01010 Vitoria-Gasteiz) aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00ak arte.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.